

AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKORAKO ESKAERA

Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak, bere 8. artikuluan, zera dio:

“1. Testu arauemailearen aurreproiektua edo proiektua prestatu baino lehen, eskumena daukan organoak kontsulta publiko bat egingo du, eraginpeko herritarren eta erakundeen iritzia jasotzeko, baita erakunde esanguratsuena ere. Alderdi hauek planteatuko zaizkie:

- a) Erregulazio berriaren bidez konpondu nahi den arazoa eta xedea.*
- b) Testu arauemailea onartzea beharrezkoa den eta aukerarik egokiena den ala ez.*
- c) Arauaren xedea.*
- d) Planteatutako arazoa konpontzeko egon daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak).*

2. Aurretizko kontsulta bitarteko telematikoen bidez egingo da, Bizkaiko Foru Aldundiaren web orriaren bitartez (www.bizkaia.eus).

3. Kontsulta publikoa egiten denean, testu arauemailearen jasotzaile izan daitezkeen pertsona eta erakunde guztiengana heltzen dela bermatu beharko da, testuari buruzko iritzia emateko aukera izan dezaten. Kontsultaren iraupena hamabost (15) egun natu ralekoa izango da, gehienez, Bizkaiko Foru Aldundiaren web orrian jartzen denetik hasita.”

SOLICITUD DE CONSULTA PUBLICA PREVIA

El Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia establece en su artículo 8:

“1. Con carácter previo a la elaboración del anteproyecto o proyecto de texto normativo, el departamento competente llevará a cabo una consulta pública en la que se recabará la opinión de la ciudadanía y de las entidades potencialmente afectadas, así como de las organizaciones más representativas, sobre los siguientes aspectos:

- a) El problema que se pretende resolver a través de la nueva regulación y su finalidad.*
- b) La necesidad y oportunidad de la aprobación del texto normativo.*
- c) El objeto de la norma.*
- d) La existencia, si procediera, de soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias al problema planteado.*

2. La consulta previa se llevará a cabo por medios telemáticos a través de la Web de la Diputación Foral de Bizkaia (www.bizkaia.eus).

3. Esta consulta pública deberá realizarse de forma que su contenido alcance a todas las potenciales personas y entidades destinatarias del texto normativo con la finalidad de que puedan emitir opinión al respecto, y se llevará a cabo durante un período máximo de quince (15) días naturales desde la fecha de su inserción en la Web de la Diputación Foral de Bizkaia.”



Foru Dekretu proposamena ez dagoenez Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 9. artikuluan ageri diren salbuetsitako kasuen artean eta ezta beronen Bigarren Xedapen Gehigarrian ere, Euskara eta Kulturako Foru Saileko Kirol Zerbitzuaren proposamenez eta foru sail bereko eta Zerbitzu Orokorretako Zerbitzuak eskatuta, galdegin gura da aurretiazko kontsulta publikoko izapideak hasia honako arau proposamenaren inguruan:

Proposamena: Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretu proposamena, 2017. urtean kirol teknikarien trebakuntzarako beken oinarriak onartzen eta deialdia arautzen duena.

Xedapen orokor honen helburua da Bizkaiko Lurralde Historikoko kirol talde eta elkarteetako teknikarien trebakuntza maila hobetzea eta kirolaren errendimendua hobetu guran ere, kirol teknikarien formakuntza eta berauek beren jarduketan eremuan -nork berean- duten trebakuntza maila sustatzea.

Proposamenaren inguruan honako galderak planteatu gura dira:

a) Uste duzu Bizkaian kirol teknikarien formakuntza ez dela nahikoa, eta hori arazoa dela?

b) Uste duzu beharrezkoa eta egokia dela, detektatu den arazoa konpontze aldera, kirol teknikarien trebakuntzarako beken deialdia egitea?

Dado que el proyecto de Decreto Foral no se encuentra entre los supuestos de exención recogidos en el artículo 9 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, ni en su Disposición Adicional Segunda, el Servicio de Servicios Generales del Departamento Foral de Euskera y Cultura, a propuesta del Servicio de Deportes del mismo departamento foral, solicita la apertura del trámite de consulta pública previa con relación a la siguiente propuesta normativa:

Propuesta: Propuesta de Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de becas destinadas a la formación de técnicas y técnicos de deporte durante el ejercicio 2017.

Este proyecto de disposición de carácter general tiene como finalidad una mejora en el nivel formativo del personal técnico de los clubes y asociaciones deportivas del Territorio Histórico de Bizkaia y, en aras de una mejora del rendimiento de los y las deportistas, fomentar la formación de técnicas y técnicos de deporte y su nivel de cualificación en sus respectivas áreas de actuación.

Con relación a esta propuesta se plantean las siguiente preguntas:

a) ¿Cree Vd. que realmente existe un problema de falta de formación de técnicas y técnicos de deporte en el Territorio Histórico de Bizkaia?

b) ¿Cree Vd., que es necesario y oportuno a fin de solucionar el problema detectado, el realizar una convocatoria de becas destinadas a la formación de técnicas y técnicos de deporte?



c) Uste duzu arauaren objektua, alegia, kirol teknikarien trebakuntzarako bekak ematea, zuzena dela?

c) ¿Cree Vd. que el objeto de la norma, esto es, la concesión de becas a la formación de técnicas y técnicos de deporte, es acertado?

d) Planteatutako arazoa konpontzeko bestelako aukerak egon daitezkeela uste duzu?

d) ¿Cree Vd. que existen soluciones alternativas al problema planteado?

Bilbon, 2017ko ekainaren 7an.

Bilbao, a 7 de junio de 2017.

Igor Estankona Bilbao
ADM. OROKORREKO TEKNIKARIA
TÉCNICO DE ADM. GENERAL

Miren Arantza Mardaras Izarza
KIROL ZERTBIZUKO BURUA
JEFA DEL SERVICIO DE DEPORTES

Olatz Unzurrunzaga Muro
EUSKARA ETA KULTURAKO AHOLKULARITZA TEKNIKO ETA LANGILERIAREN ATALEKO BURUA
JEFA DE LA SECCIÓN DE ASESORÍA TÉCNICA Y PERSONAL DE EUSKERA Y CULTURA

Asier Haza del Cerro
EUSKARA ETA KULTURAKO ZERBITZU OROKORREN ZERBITZUKO BURUA
JEFE DEL SERVICIO DE SERVICIOS GENERALES DE EUSKERA Y CULTURA